


12 ●LERKI IRUPITAN
+
CD BAT



LODIKROKO

Amaia Hennebutte-Millard
Jesus Aured
Joxelu Barasetegi

Ustiapen pedagogikoa. IKAS 2007

AURKEZPENA

12 OLERKI APAINDUAK

1 CD (olerkiak musikan kontaturik)

◆ Neurria

Profesionalentzat : A3 izariko dozier bat, barnean 12 olerki apainduak + CDa

Publiko zabalarentzat : album bat (14 x 12 cm), barnean CDa.

◆ Sortzaileak

Amaia Hennebutte-Millard-ek olerkiak idatzi ditu eta marrazkiz apaindu.

Jesus Aured-ek musikak asmatu ditu.

Joselu Berasategik olerki grabaketetan parte hartu du.

◆ Gaiak

Apainduak diren gaiak haurren munduari lotuak dira :

animaliak : krokodiloa, pinpirina, otsoa, eulia eta armiarma...

jostailuak : baloia, telefonoa, bizikleta, haize parpaila...

ingurunea : ilargia, kaka, zikinak

eta Amatto.

◆ Deskribapena

Olerkiak : - soinu jokoak eta errimak biziki markatuak dira;

- batzuk laburrak, beste batzuk luzeagoak;

- batzuk poetikoak dira, beste batzuk irrigarriak.

Apaindurak : - apaindurak estilo arras desberdinetakoak dira;

- teknika eta material anitz baliatuak dira : marrazkia,
kolatze, "bigarren eskuko" materiala, eta abar.

Musika : - apainduren gisan, musikak olerki bakoitzaren munduan eta
giroan sarrarazten gaitu;

- musika tresna arras desberdinak baliatzen dira;

- giro arrunt desberdinak sortu dira.

NOLA ERABIL

Haurrek etxean, bakarrik edo aitamekin, entzuten ahal dute CDa, liburuxkako marrazkiei eta olerkiei begiratzuz.

Hautzaindegietako eta eskoletako profesionalek manera desberdinez erabil dezakete material hau.

◆ Olerki bilduma gisa :

Olerki bilduma bat dute eskuetan.

Beraz **hizkuntzari lotuak diren gaitasunak** landuko dituzte gehienik : olerkiak entzun, ahoskatu, azaldu eta ikasi...

◆ Obra plastiko gisa :

Ikuspegi plastikoa landuz, **arte plastikoari lotuak diren gaitasunak** landuko dituzte gehienik : apaindura bat berek berriz egin, apaindura berri batzuk asmatu eta erakusketa muntatu, txotxongilo batzuk egin eta hauen bidez olerkia antzeztu...

◆ Olerki bat hautatu eta proiektu baten mamia bilakarazi :

Hautatua den olerkia proiektu baten gaia bilakatzen da eta beraz gaitasun anitzen lantzeko parada badugu.

Adibideak :

- Telefonoa : telefono jokoetan aritu gelan (aho hizkuntza),
- Haize-parpaila : haize-parpaila batzuk eraiki eta kanpoan estreinatu (munduaren ezagutza eta sorkuntza),
- Otsoa : otsoaren gaiaz proiektu bat landu (hizkuntza),
- Zikinak : ingurumena errespetatu eta gure jarreraren arabera landu (munduaren ezagutza),
- Bizikleta : jostailu gurgildunak bildu eta eskolan ikertu : bizikleta, trotineta, irristailuak... (gorputzarekin egin eta ekin).

AZKAINGO AMA ESKOLAN LANDU PROIEKTUA

Krokodilo olerkia hautatua izan da, eta ondorioz krokodiloa proiektu baten gai bilakatu da. Hemen daukazue proiektuaren sintesia : landuak izan diren gaitasunak eskemak azaltzen dizkizue.



HIZKUNTZAREN LANTZEKO JARDUERAK

- Urtean zehar, bederen 10 olerki edo kantu erran edo kantatu.
- Ipuin labur bat ulertu eta ondotik azaldu eta kontatu.

LEHEN SAIOA

Helburua

Krokodiloaren olerkia deskubritu, ezagutu.

Krokodiloaren olerkia CDan entzun, afixa erakutsi gabe.

Elkarrekin ikus pertsonaia nagusia eta zer animalia den aipagai.

Jarduerak

Bigarren aldikotz entzun, afixa erakutsiz.

Afixan zer ikusten da ?
Non dira krokodilo lodia eta ttipia...?

Azken aldikotz entzun, haurrek nahi badute.

HIZKUNTZAREN LANTZEKO JARDUERAK

BIGARREN SAIOA

Helburuak

Haurrek **Krokodilo** olerkia bereganatu.
Bakoitzak bere hitzekin
ipuina kontatu.

Krokodilo olerkia gogoan hartzeko
errepikapenak egin afixa eta CDa baliatuz.

Jarduerak

“Eta olerkia guk erraten bagenu ?”
Irakasleak irakurri eta,
haurrak saiatzen dira.

“Nork nahi du ipuina kontatu ?”
Kontalaria lagunduko du irakasleak
galdeen bidez.

HIZKUNTZAREN LANTZEKO JARDUERAK

HIRUGARREN SAIOA

Helburua

Krokodilo
olerkiaren gogoan hartzeko
erhi joko bat asmatu.

Olerkia elkarrekin irakurri.

Jarduerak

“Eta erhi jokoak asmatzen
bagenu !” Haurrengandik
proposamenak bildu,
erabakiak hartu : “Zein erhi joko egin
genezake krokodilo ttipiarentzat ?”
Eta abar...

Olerkia berriz irakurri hautatuak izan
diren erhi jokoak eginez.

HIZKUNTZAREN LANTZEKO JARDUERAK

LAUGARREN SAIOA

Helburua

Krokodilo olerkia gogoan atxiki eta ontsa gozatu.

Olerkia landu, CDaren bitartez erhi jokoak eginez.

Jarduerak

Olerkia erran elkarrekin, erhi jokoak eginez.

Ikasi eta gozatu.

SENTSIBILITATEA-IRUDIMENA-SORKUNTZA

GAITASUNAK

1

Ahoskatzen den testua
musika bati egokitzen ikasi.

2

Ekoizpena entzun eta taldean
aipatu.

3

Eskulana : bolumenenekin usatzen ikasi.

4

Lan taldeetan aritzen trebatu.

SENTSIBILITATEA-IRUDIMENA-SORKUNTZA

GAITASUNAK

1

Ahoskatzen den testua musika bati egokitzen ikasi.

2

Ekoizpena entzun eta taldean aipatu.

JARDUERAK

LEHEN SAIOA

Helburua

Krokodiloaren musikan ezaugarri batzuk bilatu eta atzeman.

Musika soilik piztu eta olerkia elkarrekin irakurri.

Musika testuari egokitzea ez dela aise ohartu.

Jarduerak

Ezaugarri batzuen atzematea proposatu, denak betan eta memento egokian hasteko.

Musika soilik entzun eta ezaugarri errex batzuk taldean atzeman.

SENTSIBILITATEA-IRUDIMENA-SORKUNTZA

GAITASUNAK

1

Ahoskatzen den testua musika bati egokitzen ikasi.

2

Ekoizpena entzun eta taldean aipatu.

JARDUERAK

BIGARREN SAIOA

Helburua

Ezaugarriak errespetatuz olerkia erran ahal bezainbat musikari egokituz, taldeka.

Atzemanak izan diren ezaugarriez oroitu.

Musika soilik eman eta olerkia taldean erran.

Jarduerak

Launaka olerkia erranarazi haurrei.
Besteek laukotearen ekoizpenaren ebaluaketa egiten dute.

SENTSIBILITATEA-IRUDIMENA-SORKUNTZA

GAITASUNAK

1

Ahoskatzen den testua musika bati egokitzen ikasi.

2

Ekoizpena entzun eta taldean aipatu.

JARDUERAK

HIRUGARREN SAIOA

Helburuak

Musikari ahal bezainbat jarraikiz olerkiaren bakarrik erratera ausartu.

Beste haurren oharrak onartu eta bildu ebaluaketa gisa.

Olerkia taldean erraten trebatu musikari ahal bezainbat jarraikiz.

Ariketa bera errepikatu baina haurrak bakarrik egin behar du besteen aitzinean.

Jarduerak

Besteen kritikak onartu eta haien arabera egokitu.

SENTSIBILITATEA-IRUDIMENA-SORKUNTZA

GAITASUNAK

3

Eskulana : bolumenekin
usatzen ikasi...

4

Obra bat osatu taldean arituz.

JARDUERAK

LEHEN SAIOA

Helburuak

Krokodilo lodi baten egitearen
ideia onarrarazi.

Taldean ideiak bildu
eta egokienak hautatu.

Beharrezkoa den materialaren
biltzeko urratsetan trebatu.

Jarduerak

Olerkia irakurri eta, haurrei proposatu :
“Eta krokodilo bat egiten bagenu
gelan atxikitzeko ?”
Adostasuna badugu, teknikak aipatu :
“Nola egiten dugu ?
Zer izaritan ? Non atxikiko dugu gelan ?”
Paperaren teknika aipatu eta proposatu.
Materialaren zerrenda egin : burdin-sarea,
egunkari-papera, kola.

SENTSIBILITATEA-IRUDIMENA-SORKUNTZA

GAITASUNAK

3

Eskulana : bolumenekin
usatzen ikasi...

4

Obra bat osatu taldean arituz.

JARDUERAK

BIGARREN SAIOA

Helburuak

Paperaren urratzen eta kolatzen trebatu.

Jarduerak

Krokodilo lodiaren metalezko egitura
prest delarik, egunkari-papera
prestatu eta urratu.
Launaka, egunkari-paper pusakak
kolan trenpatu eta egituraren
gainean kolatu.

SENTSIBILITATEA-IRUDIMENA-SORKUNTZA

GAITASUNAK

3

Eskulana : bolumenekin
usatzen ikasi...

4

Obra bat osatu taldean arituz.

JARDUERAK

HIRUGARREN SAIOA

Helburuak

Paperaren urratzen eta kolatzen trebatu.

Jarduerak

Egunkari-papera
prestatu eta urratu.
Krokodiloa beste paper
geruza batez estali.

SENTSIBILITATEA-IRUDIMENA-SORKUNTZA

GAITASUNAK

3

Eskulana : ekoizpena bolumenean egiten trebatu...

4

Obra bat osatu taldean arituz.

JARDUERAK

LAUGARREN SAIOA

Helburuak

Eskultura larri bat tindatu.

Jarduerak

Krokodiloa prest da ;
orain eskultura handi bat da ;
bolumena duen eskultura.
Haurrak binaka eman, eskultura arrabolaz tinda dezaten.

SENTSIBILITATEA-IRUDIMENA-SORKUNTZA

GAITASUNAK

3

Eskulana : bolumenekin
usatzen ikasi...

4

Obra bat osatu taldean arituz.

JARDUERAK

BOSGARREN SAIOA

Helburuak

Mozten, urratzen, kolatzen trebatu.

Krokodiloaren gorputz-atalak ezagutu
(hortzak, larrua, begiak, buztana...)

Jarduerak

Krokodiloa prest da ; tindatua da.
Orain apain daiteke.
Taldean erabaki nola egin hortzak, begiak...
Materiala bildu eta lanean hasi.
Materiala : kolorezko ekai sintetikoa,
aizturak, kola, tinta gorria, feltro-papera...

SENTSIBILITATEA-IRUDIMENA-SORKUNTZA

GAITASUNAK

3

Eskulana : bolumenekin
usatzen ikasi...

4

Obra bat osatu taldean arituz.

JARDUERAK

SEIGARREN SAIOA *

Helburuak

Mozten, urratzen, kolatzen trebatu.

Ikasgelan baliatu diren teknikekin atrebitu.
Lanaren arabera tresnen eta material
egokien hautatzen ikasi.

Izariari loturik diren neurrien
nozioak landu : tipi, handi, arteko

Jarduera

Haur batzuen proposamenetik
abiatuz : *"Krokodilo
ñaño bat egiten bagenu ?"*
Teknikaz oroitu eta behar den
materialaren zerrenda egin.
Bakoitzari galda krokodilo tipi bat egin dezan
beretako.

*Beste saio bat egin daiteke krokodilo oraino tipiago baten eraikitzeko.

ERANSKINAK

Bibliografia :

Mayer, Mercer. *Aligator bat dut ohe azpian.*

Eguna :

Izena :


Horra krokodilo familia bat : aita, ama eta bi kume. Familiakoak ez direnak marra.



Eguna :

Izena :

Hiru krokodiloak aitzurrez motz itzazu. Ondotik tipienetik handienera kola itzazu.



Eguna :

Izena :

Krokodilo ñañoari bidea er Hiz erakuts iezaiozu, amarengana hel dadin.
Gero bide hori arkatzez marra ezazu.



Eguna :

Izena :

Behereko kartak motz itzazu eta modeloaren ondoan kola.

